

3. KAPITULUA: BESTE ZENBAIT ALDERDI

1 IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Gure ikastetxean, gutxienez bi bilera egiten ditugu ikasturtearen barruan, bata azaroan, eta bestea maiatzean, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko talde bakoitza nola doan jakiteko (oso beharrezkoa izanez gero, Haur Hezkuntzan ere egin daiteke baten bat). Bilera horietan honako hauek elkartzen gara: tutorea, ikasgelan sartzan diren arloko berariazko irakasle guztiak (ingeleskoa, musikakoa, gorputz-hezkuntzako, gaztelaniakoa eta erlijioakoa), pedagogia terapeutikoko irakaslea (laguntza jasotzen ari den ikaslerik badago) eta irakasle kontsultaria. Beheragokoak bezalako txantilo-ereduren bat erabilita, 2 alderdi balioesten ditugu funtsean: alde batetik, taldeak eskola mailan daraman bidea eta kohesio-maila eta, bestetik, ikasle bakoitzak taldean duen integrazio-maila eta errendimendua.

Hainbat ikasturte dira bilera horiek egiten hasi ginela, eta gero eta ziurrago gaude ezinbestekoak direla. Arazoak zituzten ikasle batzuen portaera bideratzeko eta portaera disruptiboan aurrean agertu beharreko erreakzioari buruzko akordioak lortzeko baliagarriak izan zaizkigu; errendimendu-arazoak garaiz etetea lortu dugu eta, horretarako, hainbat erabaki hartu ditugu (laguntzeko, estrategia aldatzeko, familiekin hitz egiteko eta abar).

Argitu beharra dago ez dutela zerikusirik Bigarren Hezkuntzako ebaluazio-saioekin. Gure bileretan ez ditugu irakasgai bakoitzeko notak jasoarazten. Aitzitik, honako helburu hauek ditugu:

- a) atzerapenei aurrea hartzea,
- b) jarrera irregular batzuei aurre egiteko akordioak bilatzea
- c) eta talde osoaren bidean eragina duten erabakiak hartzea.

Portaera-arazoak agertzen direnean, komeni da Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Kaxa Gorrien iradokizun praktikoak gogoratzea:

IKASTALDEKO DINAMIKA HOBETZEKO PROPOSAMENAK¹

- Ikastaldeko arauak garbi azaltzea, era positiboan ematea eta ume guztiek ulertu dutela ziurtatzea. Oso komenigarria izango litzateke 3. zikloko ikasle guztien artean arauak egitea eta bozkatzea.
- Konfiantza-giroa sortzea eta, horretarako, gauzen arrazoiak azaltzea eta ikasleen proposamenak onartzea. Taldekideen eskubideak eta betebeharrak beren eskuetan daudela jakinaraztea.
- Lagunartekotasun-jarrerak bultzatzea eta dauden talde txikiak errespetatzea. Talde-jarduera diskriminatzaileen antolaketa arbuizatzea (sexuagatik, etniagatik, estatusagatik ...)
- Ekintza osagarriak antolatzea, ikastetxetik kanpo zein barruan, ikasleen arteko harremanak eta komunikazioa hobetzeko.
- Integratzeko zailtasunak dituzten ikasleen bereizketari aurrea hartzeko eta saihesteko lankidetza bultzatzea.
- Lan-ohitura egokiak barneratzea: garbitasuna eta higiena, komunikazioa eta harremanak, eta autonomia (pertsonala, antolamenduan eta lanean).
- Ikasleak txandaka banatzea elkarren arteko harremanak zabaltzeko.

¹ Honako honetatik hartua: MEC ("Cajas Rojas"), *Orientación y Tutoría*, 1992.

IRAKASLEEN ARTEAN TALDEAREN FUNTZIONAMENDUA EBALUATZEKO DOKUMENTUA

Data:

Taldearen maila:

Mutil kop.:

Neska kop.:

Tutorea:

Taldearen aurreko eskola-errendimenduaren azterketa				Talde-funtzionamenduaren azterketa:
Irakasgaia	AE	HB	CNE edo HI	
Ingurunea				
Matematika				
Gaztelania				
Euskara				
Ingelesa				
Gorputz Hezkuntza				
H. Artistikoa				
Erljioa				
Guztira				
Talde gisa hartu beharreko erabakiak: _____ _____ _____ Ikasle bakoitzaren eskola-errendimenduaren azterketa (erantsi ebaluazio-akta). _____ _____ _____				• Nolakoa da taldearen jarrera orokorra? _____ _____ • Nolakoa da taldeko giroa? _____ _____ • Nolakoa da talde-kohesioa? (Soziogramaren bidez datu kuantitatiboa lortzen da) _____ _____ • Ikasleren batek ba al du integrazio-arazorik? _____ _____ • Ikasleren batek ba al du portaera-arazorik? _____ _____
Hartutako erabakiak: • Taldeari dagokionez. • Integratzeko zailtasunak dituzten ikasleei dagokienez. • Portaera-arazoak dituzten ikasleei dagokienez.				

Txantilo hori baliagarria izan daiteke ikasle jakin batzuen arazoa zein izan daitekeen jakiteko.

IKASKUNTZAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK ²				
FAKTOREA	DEFINIZIOA	Zergatik da garrantzitsua?	Nola ezagutu daiteke?	Zer egin dezaket?
1. Ikasteko estiloa.	Ikaskuntza-egoerei aurre egin eta erantzun behar zaienean pentsamendua eta jarduera erabiltzeko eta antolatzeko norberak duen modua. 5 alderdi balioesten dira: <ul style="list-style-type: none"> • Taldekatze mota. • Egozte-estiloa. • Pertzepzio mota (entzumen, ikusmen edo ukimen bidezkoa). • Pentsakortasuna-Oldarkortasuna. • Zeregin egituratuak ala egituratu gabeak nahiago diren. 	Ikasle baten ikasteko estiloa ezagutuz gero, ikasle horrek egiten duen ahaleginaren emaitzak optimizatzeko aukera dugulako.	Honako hauen bitartez: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei zuzenean egindako galderak. • Ikasleek nola ikasten duten adierazteko emandako azalpenak. • Hainbat zereginetako emaitzen behaketa. • Taldekatzeko lehenetsunak. • Arretarik edo parte-hartzerik handieneko uneak. • Errefortzu moten artean eraginkorrena. • Arrakastari edo porrotari lotzen dizkietenak. • Zeregin bat egiteko erabilitako estrategiak. • Emaitzarik onenak eman dituzten zereginak. • Zereginei aurre egiteko modua (orokorra, iraunkorra, zorrotza, gogoetatsua). 	<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat lan mota proposatu: egituratuak eta egituratu gabeak. • Zereginak egiteko modua aukeran eskaini. • Ikasteko estilo ezberdinak dituzten ikasleek nola ikasten duten kontatzea. • Errefortzurik eraginkorrenak erabili. • Ikasleei arrakastaren edo porrotaren inguruan ematen zaizkien mezuak zaindu. • Ikasleak huts egiten duenean, arrazoia zein izan den eta nola hobe dezakeen ikusten lagundu.
2. Gaitasun instrumentala.	Ikasleek arloetako berariazko ezagutzak eskuratzeko dituzten "jakintza instrumentalen" multzoa. Arlo guztiei aurre egiteko "giltza" diren ezagutzak dira "jakintza instrumentalak".	Ikasle batek aurrera egiteko duen aukera erreala zehazten duelako eta, aldi berean, irakasleen lana baldintzatzen duelako, bai edukiei, bai erabili beharreko estrategia didaktikoei dagokienez.	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko ziklo/ikasturteko ebaluazio-irizpideak erabilita. • Hasierako ebaluazio bat eginda (aurreko proba edo txostenen baten bitartez). • Irakasleen iritzia jasota (3. zikloan). 	<ul style="list-style-type: none"> • Esku-hartzearen xede diren alderdi instrumentaletan eta esku hartzeko moduan lehenetsunak ezarri. • Gainerako irakasleak gaitasun honek duen garrantziaz sentsibilizatu. • Arloei lotutako eguneroko jardueretan barne hartzeko aukera koordinatu. • Mailarik baxueneko ikasleentzako hezkuntza-erantzunik egokiena antolatu. • Familientzako informazioa prestatu. • Gaitasun instrumentalak (hau da, buruzko kalkulua, irakurketaren abiadura eta ulermena, eragiketa-mekanika, grafikoak egitea eta abar) eskuratzeko erraztuko duten oinarriko prozedurak maiz landu.

² Honako liburu honetan oinarritua: R..J. García - J..M. Moreno - J..C. Torrego, *Orientación y tutoría en la Educación Secundaria*. Ed. Edelvives. Colec. Aula Reforma. Zaragoza. 1993.

<p>3. Aurretiko ezagutzak.</p>	<p>Ikasleek zientzia-, gizarte- eta hizkuntza-fenomenoei buruz ematen dituzten azalpenak; ikasleentzat arlo guztietako eduki berriak aurkeztu aurretik abiapuntu eta oinarri diren ezagutzak.</p>	<p>Unitate Didaktikoa garatzean, baliteke aurrera egiterik ez izatea, ez, ordea, ikasleek eduki berriak ulertzen ez dituelako, eduki horiek aurreko zerbaitekin erlazionatzeko eta zentzua emateko gauza ez direlako edota kontzeptu itxuraldatuak eta zientifikoki okerrak erabiltzen dituztelako baizik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleekin kontzeptu berriari buruzko alde aurreko gogoeta egitea, "jakite-maila" ikusteko (hitzez edo proba motaren baten bidez: proba objektiboa, kontzeptuzko mapa...) 	<p>Bi ildoko esku-hartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prebentziokoa: irakasle taldeak honako alderdi hauek egiaztatu beharko lituzke: programazioetan beharrezkoak diren edukiak jasotzen diren, sekuentziarioa egokia den, alde aurreko ideiei berariazko lana eskaintzea aurreikusi den, eta ikasleek beren ulertzeko moduak (okerrak badira ere) adierazi ahal izateko giroa bultzatzeko zer egingo den. • Erabakitzailea: ikasleek Unitate Didaktikoa garatzeko beharrezkoak diren aurretiko ezagutzak badituzten ala ez ikusteko lan-saioak antolatu.
<p>4. Ikasteko estrategiak.</p>	<p>Ikasleek dituzten eta gai bat lantzean erabiltzen dituzten lan- eta ikasketa-trebetasunak dira, eta edukien ikaskuntza erraztu edo zaildu dezakete.</p>	<p>Ikasteko estrategia desagokiak erabiltzeak ikasle batzuen errendimendu baxua eragin dezakeelako.</p>	<p>Prozedurazko edukiak balioestean, behaketaren bidez, edota nola egin duten galdetuta (zuzenean edo galdera sorta baten bidez). Berariazko irakasle bakoitzak bere irizpidea du bere arloan lan egiteko modurik egokiena zein den bereizteko.</p>	<p>Instrukzio Plan bat egin eta, jardueren garapenean, estrategiei buruzko lan bat barne hartu (plangintza egin eta ebaluatu).</p>
<p>5. Ikasteko motibazioa.</p>	<p>Ikasleek ikasketa-ekintzak hasteko eta ekintza horiei eusteko lagungarriak diren faktoreen multzoa. Hiru alderdi azpimarratu behar dira: ikasteko arrazoiak, interesak, eta arrakastari edo porrotari lotzen dizkietenak.</p>	<p>Ikasleak eskola-zereginaren aurrean duen jarrera zehazten duelako eta, egin nahi duen ahalegina zehazten duen heinean, ikaslearen arrakasten edo porroten arrazoiak izan daitekeelako.</p>	<p>Aldagai asko daude; hona hemen motibazio-faktorearen berariazkoenak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasteko arrazoiak edo xedeak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntza-xedeak (jakintza bera). - Burutze-xedeak (arrakasta izatea edo porrota saihestea). 2. Interesak. 3. Arrakastari edo porrotari lotzen dizkietenak (alderdi hauek behaketaren, elkarrizketaren edo galdera sortaren bitartez jaso daitezke). 	<p>Xedeak hobetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei arlo bakoitzeko helburuak, edukiak eta irizpideak argi eta garbi definitu. • Onartzeko interesaren ordez ikasteko interesa sustatu. <p>Interesak hobetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarduera erakargarriak antolatu. <p>Egozteak hobetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelan giro egokia sortu. • Irakasleen mezuak zaindu, akatsa ikasteko elementu gisa balioetsi, eta ikasleengan konfiantza agertu.

<p>6. Autokontzeptua.</p>	<p>Kontzeptu zabala da, eta bakoitzak bere buruaz dituen irudiak hartzen ditu kontuan (gorputz-alderdiak, gizarte-alderdiak eta ezagutzei, emozioei eta moralari lotutakoak barne hartzen dituztenak). Irudikapen horiek errealak izan daitezke, ala ez. Aldi berean, pertsonak era positiboan edo negatiboan balioetsi ditzake bere buruaz dituen irudi horiek, eta horretan datza autoestimua.</p> <p>Irudi horiek ikusteko, honako alderdi hauek azter daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lotura • Berezitasuna • Autokontrola • Erreferentzia-ereduak 	<p>Autokontzeptua landuz gero errendimendua neurri handi batean hobetuko dugulako.</p>	<p>Ikus informazio-orria.</p>	<p>Ikus esku hartzeko jarraibideak.</p>
<p>7. Oreka pertsonala.</p>	<p>Pertsonak bere buruaz irudi egokia duenean, eguneroko egoeretan autonomiaz erantzuten duenean eta kultur, estetika, zientzia eta giza balioak balioesteko sentikortasuna duenean lortzen duen egoera; jarrera malgua da, baina ideien eta gizarte-gertakizunen aurrean jarrera garbia hartuta.</p>	<p>Kontzeptu erlatiboa da; inork ez du bere osotasunean, eta ez dago inolako oreka pertsonalik ez duen inor. Hala ere, inor gustura ez badago, inguratzen duenarekiko interesa galtzen du, gainerakoen babesa eta maitasuna falta zaio..., eta hori agerian geratzen da eskola-eremuan.</p>	<p>Taldean betetzen dituzten rolen eta taldearekiko integrazioaren bidez.</p> <p>Jarrera antisozialen agerpena kontuan hartuta.</p> <p>Autokontzeptuaren bitartez.</p>	<p>Bakoitzaren nortasuna eta taldean betetzen duen rola bilatzen lagundu.</p> <p>Eskolan ongi egoteko motibatu.</p> <p>Autoestimua bultzatu.</p> <p>Harremanak egiten eta erabakiak hartzen lagundu.</p>
<p>8. Gela/taldea.</p>	<p>Gela talde bihurtzen da taldea definitzen duten hainbat alderdi agertzen direnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Afektua, estimua eta segurtasuna. • Talde-xede ezagunak eta konpartituak. • Bere gain hartutako eta gogoz hartutako rolak. • Taldearen arauak eta kohesioa. • Komunikazioa eta elkarreagina. • Talde batekoa izatearen sentimendua. 	<p>Gela/taldearen funtzionamendua ikasteko prozesuan eragin handiena duten faktoreetako bat da.</p>	<p>Taldearen funtzionamendu ona tinkotze- eta produktibitate-mailaren berri emango diguten taldeko hainbat jarreratan ikus daiteke.</p> <p>Gela talde gisa tinkotzeko prozesuan, 4 etapa daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Orientazio-etapa • Finkatzeko eta argitzeko etapa • Produktibitate-etapa • Amaierako etapa 	<p>Banako edo taldeko arazoak saihesteko modurik onena honako hauen bitartez "taldea osatzen" saiatzea da: arloetako lankidetzak, tutoretzako talde-teknikak (harrera-jarduerak, taldearen arauak ituntzea, ordezkaria hautatzea...)</p>
<p>9. Eskola-testuingurua.</p>	<p>Ikaslearen ikasteko prozesuarekin zerikusia duten eskola-ingurune elementuen multzoa; faktore fisikoak zein harreman-faktoreak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Faktore jakin batzuek ikaslearen zailtasunak orekatu edo areagotu ditzaketelako. • Faktore horiek ezagutu ondoren laguntza erabaki daitekeelako. • Irakaskuntza-testuingurua bera delako, eta ikasleen garapena sustatzeko aukera ematen duelako. 	<p>IKASGELARI eta IKASTETXEARI lotutako alderdi guztiak ebaluatuta.</p>	<p>Ebaluatutako alderdietatik abiatuta aldaketak edo hobekuntzak sustatzea.</p>

<p>10. Familia-ingurunea.</p>	<p>Ikasleak bere familiagunean dituen giro-elementuen multzoa, hala nola seme-alabekiko iguripenak, arrakastari edo porrotari lotzen dizkietenak, anai-arreben artean sustatzen diren harremanak, arauak, gehiegizko babesa edo utzikeria, ikastetxearekiko harremanak...</p>	<p>Familia-ingurunean ikaslearen jarrera baldintzatu dezaketen hainbat faktore daudelako eta ikastetxetik lan egin daitekeelako.</p> <p>Hezkuntza familien zein irakasleen erantzukizuna delako.</p>	<p>Honako alderdi hauek behatuta edo galdera sorta batean galdetuta:</p> <ol style="list-style-type: none"> Ikasteko motibazioa sustatzeko modua: <ul style="list-style-type: none"> Familiaren iguripen-maila. Arrakastari edo porrotari lotzen dizkietenak. Laguntza-mezuak edo etsipen-mezuak. Seme-alaben ezaugarriak ondo ezagutzea. Autonomia pertsonala eta autokontzeptu positiboa sustatzeko modua: <ul style="list-style-type: none"> Anai-arreben arteko harreman mota. Jarrera menderatzaileak eta gurasoen arteko koherentzia-maila. Eskola-zereginetan laguntzeko modua: <ul style="list-style-type: none"> Arauak. Ikastetxearekiko harremana. Kulturaren sustapena. 	<ul style="list-style-type: none"> Familiekin elkarriketak egin. Ikasturtearen hasierako guraso-bilera, alderdi hauetako batzuei buruz hitz egiteko.
<p>11. Gizarte-testuinguru hurbila.</p>	<p>Ikasleengan eragina duen eta ikasleen eragina jasotzen duen gizarte-esparrua da (pertsonak, erakundeak, kultur alderdi bereizgarriak, aisia, komunikabideak...)</p>	<p>Ikasleen zaletasunak, balioak, motibazioak, integrazio-maila eta, jakina, errendimendua baldintzatu dezakeelako.</p>	<p>Behaketaren, elkarriketaren edo honako alderdi hauei buruzko galdera sortaren bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> Lagunak Erreferentzia taldeak Aisia-ohiturak Kultur faktore bereizgarriak Telebista 	<ul style="list-style-type: none"> Balioak landu. Jarrera kritikoa landu.

IKASTETXEA: _____

IKASLEA: _____ MAILA: _____

IRAKASLEA: _____

Zein informazio dut eskura? (behaketak)	Zer egin dezakegu? (jarduteko jarraibideak)	Jardun-denbora	Arduraduna
1. IKASTEKO ESTILOAK _____ _____ _____			
2. AURRETIKO EZAGUTZAK _____ _____ _____			
3. GAITASUN INSTRUMENTALA _____ _____ _____			
4. IKASTEKO ESTRATEGIAK _____ _____ _____			
5. IKASTEKO MOTIBAZIOA _____ _____ _____			

³ Honako liburu honetatik hartua: R. J. García - J. M. Moreno - J. C. Torrego, *Orientación y tutoría en la Educación Secundaria* Ed. Edelvives. Colec. Aula Reforma. Zaragoza. 1993.



6. AUTOKONTZEPTUA _____ _____ _____			
7. GELATALDEA _____ _____ _____			
8. OREKA PERTSONALA _____ _____ _____			
9. ESKOLA-TESTUINGURUA _____ _____ _____			
10. FAMILIA-INGURUNEA _____ _____ _____			
11. GIZARTE-TESTUINGURU HURBILA _____ _____ _____			



2 FAMILIEKIKO HARREMANAK

2.1. GALDERA SORTAK

Seme-alabak Haur Hezkuntzan eskolatzan hasten direnean gurasoei galdera sorta bat ematen bazaie ere, komeni da Lehen Hezkuntza hasten denean ere beste bat ematea. Izan ere, urteak dira haurra eskolatuta dagoela, familia-egoera ezberdina izan daiteke, eta baliteke seme-alabekiko iguripenak aldatu izana.

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILAKO GURASOENTZAKO GALDERA SORTAREN EREDUA

Zuen semeari/alabari ikasteko prozesuan laguntzeko, honako galdera hauei zintzo erantzutea eskatzen dizuegu. Datuak, jakina, konfidentzialak dira.

IKASLEAREN DATUAK

Izena eta abizenak: _____

Maila:

FAMILIAREN DATUAK

Amaren izena eta abizenak: _____

Lanbidea: _____

Aitaren izena eta abizenak: _____

Lanbidea: _____

Harremanetarako telefonoak (bizilekukoa, lanekoa, sakelakoa...): _____

Norekin bizi da haurra?

GALDERA SORTA

1) Zeinek dute eragin haurren hezkuntzan (aitak, amak, anai-arreba zaharragoek...)?

2) Izan al da zuen semearen/alabaren bizitzan eragin garrantzitsua izan duen gertakizunik (gaixotasunak, senideren baten heriotza, aitaren gabezia, gurasoen banantzea...)?

3) Halakorik izan bada, adierazi, mesedez (eragozpenik ez badago).

ESKOLAKO DATUAK

- 4) Pozik al zaudete zuen semearen/alabaren errendimenduarekin? Pozik Normal Ez oso pozik
- 5) Ahal duena baino gutxiago ematen duela uste baduzue, zein da arrazoia, zuen ustez?
- 6) Ahal duena baino gehiago ematen duela uste baduzue, zein da arrazoia, zuen ustez?
- 7) Zuen ustez, zer moduz hasi da Lehen Hezkuntzan? Pozik Axolagabe Kezkatuta
- 8) Eraitza positiboak lortzen dituenean, zer esaten diozue? Zer egiten duzue?
- 9) Eraitza negatiboak lortzen dituenean, zer esaten diozue? Zer egiten duzue?
- 10) Zuen ustez, zuen semea/alaba pozik al dago ikastetxean?
Oso pozik Nahikoa pozik Normal Ez oso pozik Batere pozik ez
- 11) Zuen ustez, zuen semea/alaba pozik al dago ikastaldean?
Oso pozik Nahikoa pozik Normal Ez oso pozik Batere pozik ez

BESTE DATU BATZUK

- 12) Zuen ustez, nolako harremanak ditu zuen semeak/alabak ikaskideekin?
Oso onak Onak Normalak Txarrak
- 13) Anai-arreben kopurua Nolako harremanak ditu anai-arrebekin?
Oso onak Onak Normalak Txarrak Oso txarrak
- 14) Nolakoa da seme/alaba hori, eskola mailan, anai-arreben aldean? Hobea Berdina Okerragoa
- 15) Esaten al diezue hori?
- 16) Ba al du lagunik? Asko Batzuk Gutxi Bat ez
- 17) Ezagutzen al dituzue zuen seme-alaben lagunak? Bai Ez Batzuk
- 18) Atsegin al duzue zuen semea/alaba haiekin egotea? Zergatik?
- 19) Zuen seme-alabak zeregin akademikoak bete gabe uzten dituenean, nola erantzuten duzue? Zer erabaki ohi duzue?

- 20) Zuen semearen/alabaren hezkuntzari dagokionez, ama eta aita ados al zaudete zer egin behar den erabakitzean?
- 21) Egiten al du eskolaz kanpoko jarduerarik? Zein?
- 22) Zuen familiak zer egiten du astialdian?
- 23) Bakarka, edo familia osoa elkarrekin egiten duzue?
- 24) Zuen semeak/alabak ba al du ikasteko leku egokirik? BAI Zein? _____
EZ
- 25) Ba al du ikasteko ordutegi finkorik? BAI Zein ordutatik zein ordutara? __ __
EZ
- 26) Ordutegi finkorik ez badu, zenbat denbora eskaintzen dio, gutxi gorabehera, lan pertsonalari (etxeke lanak, irakurketa, ikasketa...)?
- 27) Behin eta berriz esan behar diozue ikas dezan, ala ezer esan behar izan gabe jartzen da?
- 28) Inork laguntzen al dio ikasten? Aitak Amak Anai-arrebak Irakasle partikularrak Akademiak
Ez du laguntzarik behar Ez du laguntzarik onartzen
- 29) Nola definituko zenukete zuen semea/alaba?
- 30) Iruzkirik egin nahi baduzu, idatzi hemen:

2.2. ELKARRIZKETA

Hona hemen ikasturtearen hasieran ikasle guztien familiekin egin beharreko bilerarako gidoi-eredua izan litekeena:

- Ikasturtearen hasierako Ikastetxearen Koadernoan eman (organigrama, ordutegiak, araudi orokorra, eskola-egutegia...)
- Bigarren mailaren eta tutoretzaren helburuak aurkeztu.
- Dagokion mailako haurraren ezaugarriak.
- Eskola-agenda (3. mailatik aurrera).
- Berariazko beste alderdi batzuk.

Bestalde, oso garrantzitsua da ikaslearen gurasoekin beharrezkotzat hartzen diren elkarrizketak egitea. Nolanahi ere, ziurtatu beharra dago ikasturtean gutxienez bat egingo dela, tutorea berria denean eta ikasleak ezagutzen ez dituenean, edota ikaslea berria denean izan ezik. Kasu horretan, hasieran elkarrizketa bat egin beharko litzateke, elkar ezagutzeko.

Hona hemen familiekin elkarrizketak egiteko hainbat orientabide:

Zer da elkarrizketa bat?

Oinarrizko teknika bat da, eta:

- Gurasoekin edo ikasleekin zuzeneko harremana izateko eta, beraz, elkar ezagutzeko eta komunikatzeko aukera ematen du.
- Hitzeko informazioa zein hitzekoa ez dena ematen du.

Zertarako balio du elkarrizketa batek?

- Informazioa emateko:
 - Gurasoek tutoreari, ikaslearen datu interesgarriak buruz.
 - Tutoreak gurasoei, semearen/alabaren ibilbideari edo gai puntual bati buruz.
- Erabakiak hartzeko:
 - Eskola-errendimenduari lotutako alderdiei buruz.
 - Haurraren jarreraren mesederako aldaketei buruz.

Nola egin behar da?

- Hitzordua jarri behar da (eguna eta ordua).
- Elkarrizketa ongi prestatu behar da eta, horretarako, beharrezkoa den informazio guztia bildu.
- Baldintza egokietan garatu behar da (**KORRIDOREA, PATIOA EDO KALEA ERABILI GABE, ETA GELAN ZUTIK EGON GABE**).
- Elkarrizketa egiten duenak (tutoreak) jarrera abegitsua, positiboa eta enpatikoa izan behar du: **entzun, une egokian galdetu, mezuak interpretatzen jakin, giro atsegina sortu, hitz sinpleak erabili, ezaugarri positiboak azpimarratu, bertaratutako guztien parte-hartzea sustatu, balio-judiziorik ez egin.**
- Elkarrizketatuaren larritasuna baretu eta, horretarako, **ENTZUN!**

Noiz egin behar da?

Beharrezkotzat hartzen den guztietan, baina behin gutxienez, ikasturtearen barruan (ikasturtearen amaieran ezin da familiarik geratu tutorearekin gutxienez elkarrizketa bat egin gabe).

2.3. BESTE LAGUNTZA BATZUK

Zenbaitetan, gai batzuk lantzen diren mailan oso interes handia dutela pentsatzen dugu, eta familiak inplikatzeko garrantzitsua dela ikusten dugu. Inplikazio hori lortzeko, hainbat modu ditugu: maila baterako berariazko hitzaldiak prestatu, guraso-eskolak antolatu, familiaren batekin zuzenean hitz egin, irteerak antolatu eta abar. Gai batzuk ezagutzera emateko eta etxean gai horiei buruz hitz egiteko era simple bat gutuna izan daiteke (ikasleek berek egin dezakete). Hona hemen eredu bat.

ZENBAIT GAI LANTZEKO GUTUNA FAMILIENTZAT

_____ ikaslearen familia agurgarri hori:

Ikasturtearen hasierako bileran adierazi genuen bezala, tutoretza-saioetan hainbat gai lantzen ari gara zuen seme/ari/alabari pertsona gisa heltzen laguntzeko helburu orokorrekina.

Hori guztia dela eta, laguntza eskatu nahi dizuegu. Hain zuzen ere, etxean honako gai hauei buruz hitz egin dezazuen nahi genuke:

- Etxeko erantzukizunak
- Sexu-heziketa
- Erabakiak hartzea
- Sexurik gabeko jostailuak

Horretarako, erantsitako materiala lagungarria izan daiteke.

Tutorea

BIBLIOGRAFIA

GAIEN ARABERA

PENTSATZEN IKASTEN

- BURÓN, Javier: *Enseñar a aprender: introducción a la metacognición*, Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Saila, HEZI Deustu, Edit. Marsiega.
- ELOSUA, M^a Rosa; GARCÍA, Emilio: *Estrategias para enseñar y aprender a pensar*, Edit. Narcea S.A., Colec. Apuntes I.E.P.S. 57 zk., Madril, 1993.

AUTOKONTZEPTUA

- CLEMES, Harris; BEAN, Reynold: *Cómo desarrollar la autoestima en los niños*, Edit. DEBATE, Escuela de padres, Madril, 1998, 8. argitalpena.
- VALLÉ ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Autoestima (cuaderno para 1er ciclo de E.Primaria)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1995.
- VALLÉ ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Autoestima (cuaderno para 2º ciclo de E.Primaria)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1995.
- VALLÉ ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Autoestima (cuaderno para 3er ciclo de E.Primaria)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1995.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Desarrollo de valores y autoestima (DEVA)*, IPE S.L., Caritas, Bilbo, 1998.
- MACHARGO, J.: *El profesor y el autoconcepto de los alumnos*, Edit. Escuela Española, Madril, 1991.
- MACHARGO, J.: *Programa para el desarrollo de la autoestima*, Edit. Escuela Española, Madril, 1996.
- VILLA SANCHEZ, Aurelio; AUZMENDI ESCRIBANO, Elena: *Desarrollo y evaluación del autoconcepto en la edad infantil*, Edic. Mensajero, Bilbo, 1999.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Programa de buenos tratos*, Instituto de la Mujer de la Rioja, Consejería de salud y Servicios Sociales. Errioxako Gobernu.

HEZKIDETZA

- FABRA, M^a Luisa: *Ni resignadas ni sumisas. Técnicas de grupo para la socialización asertiva de niñas y chicas*, Colecc. Cuadernos para la Coeducación, Inst. Ciencias de la Educación, Univ. Autónoma de Barcelona, Bartzelona. 1996.
- SUPERGINTZA ELKARTEA: *Iguales en las diferencias - Maila berean ezberdin. Guía pedagógica. Ciclo Superior*, Emakumearen Udal Zerbitzua, Bilboko Udala.

DISZIPLINA

- CARRASCOSA CEBOLLA, M^a Jesús J.; MARTINEZ MUT, Bernardo: *Cómo prevenir la indisciplina*, Edit. Escuela Española, Madril, 1998.
- CORNELOUP, Alain: *Como mantener la disciplina*, Edit. CEAC, Aula práctica, Bartzelona .1991.

- CHERRY, Clare: *Cómo mantener tranquilos a los niños*, CEAC, Bartzelona, 1985.
- GOMEZ, M^a Teresa; MIR, Victoria; SERRATS, M^a Gracia: *Propuestas de intervención en el aula. Técnicas para lograr un clima favorable en la clase*, Narcea ediciones, Madril, 1990.
- ORTEGA, Rosario eta laguntzaileak: *La convivencia escolar: qué es y cómo abordarla*, Andaluziako Junta, Consejería de Educación y Ciencia, Sevilla, 1998.

HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA GARAPEN PERTSONALA

- MAURICE, J. Elias; STEVEN, E. Tobias; BRIAN, S. Friedlander: *Educación con Inteligencia Emocional. Cómo conseguir que nuestros hijos sean sociables, felices y responsables*, Edit. Plaza Janés, Bartzelona, 1999.
- GRUP XIBECA: *Los dilemas morales. Un método para la educación en valores*, Edit. NAU LLIBRES, Valentzia, 1995.
- ALVAREZ, M.: *Diseño y evaluación de programas de educación emocional*, CISS-PRAXIS- Escuela Española, Bartzelona.
- BIZQUERRA, Rafael: *La educación emocional y el bienestar* CISS-PRAXIS- Escuela Española, Bartzelona.
- FERNANDEZ, P; Ramos, Natalia: *Corazones inteligentes*, Edit. Kairos.

SEXU HEZIKETA

- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire lehen ipuina*, ELKAR-GIE, Donostia. 1994 (6 urtera bitartean).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire lan koaderno (1)*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (7-8 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire lehen liburua*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (7-8 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire lan koaderno (2)*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (9-10 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire bigarren liburua*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (9-10 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire hirugarren liburua*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (11-14 urte).
- HARIMAGUADA: *Carpeta de educación afectivo sexual. Educación Primaria (6-12 años)*, Kanarietako Gobernua, Consejería de Educación, Cultura y Deportes, Dirección general de Ordenación e Innovación Educativa, 1994.
- LÓPEZ SÁNCHEZ, Félix: *Educación sexual de adolescentes y jóvenes. Reelaboración de cómo planear mi vida*, Siglo XXI Edit., Madril, 1995.
- BARRAGÁN MEDERO, Fernando: *La educación sexual. Guía teórica y práctica*, Ediciones Paidós, Bartzelona. 1992.
- FONT, Pere: *Pedagogía de la sexualidad*, Graó editorial, MIE, Bartzelona, 1990.

GIZARTE TREBETASUNAK

- MARTINEZ LOPEZ, M^a Mercedes: *Las habilidades sociales en la escuela 1 y 2 Programa de Enseñanza. Educación Primaria*, Edit Promolibro, Colec. Atención a la Diversidad, Valentzia, 1998.
- VALLÉS ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Las habilidades sociales en la escuela. Una propuesta curricular*, Edit. EOS, Madril, 1996.
- ZENBAITEN ARTEAN: *DISCOTE. Aprendiendo a vivir (Desarrollo de habilidades sociales y prevención contra la drogodependencia)*, IPE S.L., Bilbo, 1995 (Hasierako Maila, 1,2,3,4) (Euskaraz eta gaztelaniaz).
- MONJAS, Ines: *Programa de entrenamiento en habilidades de interacción social*, PEHIS, Edit. Trilce, Salamanca, 1993.
- ALVAREZ, A., eta beste zenbait: *Desarrollo de las habilidades sociales en niños de 3 a 6 años*, Edit. Visor, Madril, 1990.
- VALLÉS ARÁNDIGA, Antonio: *Autocontrol. Entrenamiento en actitudes, valores y normas (1º, 2º, 3º, 4º, 5º, 6º)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1998.
- ZENBAITEN ARTEAN, *Osasun eta garapen pertsonalerako gida*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995.

ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA

- BRUNET GUTIERREZ, Juan José; NEGRO FAILDE, Jose Luis: *Tutoría con adolescentes*, Edic. San Pio X, Madril, 1984, 3. argitalpena.
- CAJAS ROJAS DEL MEC DE PRIMARIA: *Orientación y tutoría*, MEC, Madril, 1992.
- FERNANDEZ TORRES, Paloma: *La función tutorial*, Edit. Castalia, MEC, Madril, 1991.
- GALVE MANZANO, Jose Luis; GARCÍA PEREZ, E. Manuel: *La acción tutorial en la enseñanza no universitaria (de 3 a 18 años)*, CEPE, Madril, 1992.
- SANCHEZ SANCHEZ, Serafín: *La tutoría en los centros docentes. Manual del profesor tutor*, Edit. Escuela Española S.A., Madril, 1985, 4. argitalpena.
- TENA ROSA, M.; CEBALLOS GARCÍA, M.J.; SEVILLA ARISPÓN, A.: *La acción tutorial. De la práctica a la teoría*, Edit. Bruño, Madril, 1998.
- GARCÍA, Rodrigo Juan; MORENO, Juan Manuel; BORREGO, Juan Carlos: *Orientación y tutoría en la Educación Secundaria*, Edelvives, Aula reforma, Zaragoza, 1996.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Orientación y tutoría. Educación Primaria Tercer Ciclo*, Lan-koaderno eta Tutoretzarako Gida, Andaluziako Junta, Consejería de Educación y Ciencia, Delegación Provincial de Córdoba, Kordoba, 1997.
- ARNAIZ, Pere; ISUS, Sofia: *La tutoría, organización y tareas*, Graó Editorial, Biblioteca de Aula 5, Bartzelona, 1995.

ERLAXAZIOA

- NADEAU, Micheline: *Juegos de relajación para niños de 5 a 12 años*, Edit. Sirio, Malaga, 1998.
- OLAZABAL AMARAL, Leonardo: *Yoga para niños en edad escolar - Eskolaturiko haurrentzako yoga*, Editor DARJEELING, Bilbo, 1989.
- CAVALLIER, François J. Paul: *Visualización- Imágenes para la acción*, Los Libros del Comienzo, Madril, 2000 (2. argitalpena).

GATAZKAK KONPONTZEA

- GIRARD, Kathryn; KOCH, Susan J.: *Resolución de conflictos en las escuelas (manual para educadores)*, Edit. Granica, Bartzelona, 1997.
- SASTRE, Genoveva; MORENO, Montserrat: *Resolución de conflictos y aprendizaje (desde un punto de vista de género)*, Edit. Gedisa.

TALDE TEKNIKAK

- ANTONS, Klaus: *Práctica de la dinámica de grupos. Ejercicios y técnica*, Edit. Herder, Colec. Biblioteca de psicología, Bartzelona, 1978.
- PINEL, Javier: *Fundamentos y técnicas grupales para EGB*, Edit. Marsiega, Madril, 1985.
- CASCÓN SORIANO, Paco; MARTÍN BERISTAIN, Carlos: *La alternativa del juego (1) (juegos y dinámicas de educación para la paz)*, Los libros de la Catarata, Madril, 2000 (12. argitalpena).

FAMILIAK

- CHEDEKEL, David S.; O'CONNELL, Karen G.: *Familias de hoy. Modelos no tradicionales*, Edit. Mc Graw-Hill/Interamericana de España, Madril, 2002.

HERIOTZARI BURUZKO HEZKUNTZA

- Huisman-Perin, E. "La muerte explicada a mi hija" EL Aleph editores, Barcelona, 2003

EGILEEN ARABERA

- ALVAREZ, A., eta beste zenbait: *Desarrollo de las habilidades sociales en niños de 3 a 6 años*, Edit. Visor, Madril, 1990.
- ALVAREZ, M.: *Diseño y evaluación de programas de educación emocional*, CISS-PRAXIS- Escuela Española, Bartzelona.
- ANTONS, Klaus: *Práctica de la dinámica de grupos. Ejercicios y técnica*, Edit. Herder, Colec. Biblioteca de psicología, Bartzelona, 1978.
- ARNAIZ, Pere; ISUS, Sofia: *La tutoría, organización y tareas*, Graó Editorial, Biblioteca de Aula 5, Bartzelona, 1995.
- BARRAGÁN MEDERO, Fernando: *La educación sexual. Guía teórica y práctica*, Ediciones Paidós, Bartzelona, 1992.
- BIZQUERRA, Rafael: *La educación emocional y el bienestar*, CISS-PRAXIS- Escuela Española, Bartzelona.
- BRUNET GUTIERREZ, Juan José; NEGRO FAILDE, Jose Luis: *Tutoría con adolescentes*, Edic. San Pio X, Madril, 1984, 3. argitalpena.
- BURÓN, Javier: *Enseñar a aprender: introducción a la metacognición*, Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Saila, HEZI Deustu, Edit. Marsiega.
- CAJAS ROJAS DEL MEC DE PRIMARIA: *Orientación y tutoría*, MEC, Madril, 1992.
- CARRASCOSA CEBOLLA, Mª Jesús J.; MARTINEZ MUT, Bernardo: *Cómo prevenir la indisciplina*, Edit. Escuela Española, Madril, 1998.
- CASCÓN SORIANO, Paco; MARTÍN BERISTAIN, Carlos: *La alternativa del juego (1) (juegos y dinámicas de educación para la paz*, Los libros de la Catarata, Madril, 2000 (12. argitalpena).
- CAVALLIER, François J. Paul: *Visualización- Imágenes para la acción*, Los Libros del Comienzo, Madril, 2000 (2. argitalpena).
- CLEMES, Harris; BEAN, Reynold: *Cómo desarrollar la autoestima en los niños*, Edit. DEBATE, Escuela de padres, Madril, 1998, 8. argitalpena.
- CORNELOUP, Alain: *Como mantener la disciplina*, Edit. CEAC, Aula práctica, Bartzelona, 1991.
- CHEDEKEL, David S.; O'CONNELL, Karen G.: *Familias de hoy. Modelos no tradicionales*, Edit. Mc Graw-Hill/Interamericana de España, Madril, 2002.
- CHERRY, Clare: *Cómo mantener tranquilos a los niños*, CEAC, Bartzelona, 1985.
- ELOSUA, Mª Rosa; GARCÍA, Emilio: *Estrategias para enseñar y aprender a pensar*, Edit. Narcea S.A., Colec. Apuntes I.E.P.S. 57 zk., Madril, 1993.
- FABRA, Mª Luisa: *Ni resignadas ni sumisas. Técnicas de grupo para la socialización asertiva de niñas y chicas*, Colecc. Cuadernos para la Coeducación, Inst. Ciencias de la Educación, Univ. Autónoma de Barcelona, Bartzelona, 1996.
- FERNANDEZ TORRES, Paloma: *La función tutorial*, Edit. Castalia, MEC, Madril, 1991.
- FERNANDEZ, P; RAMOS, Natalia: *Corazones inteligentes*, Edit. Kairos.
- FONT, Pere: *Pedagogía de la sexualidad*, Graó editorial, MIE, Bartzelona, 1990.
- GALVE MANZANO, Jose Luis; GARCÍA PEREZ, E. Manuel: *La acción tutorial en la enseñanza no universitaria (de 3 a 18 años)*, CEPE, Madril, 1992.
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informaziorako nire bigarren liburua*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (9-10 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informaziorako nire hirugarren liburua*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (11-14 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informaziorako nire lan koaderno (1)*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (7-8 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informaziorako nire lan koaderno (2)*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (9-10 urte).
- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informaziorako nire lehen ipuina*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (6 urtera bitartean).

- GARCIA, Jose Luis: *Sexu-informazioarako nire lehen liburua*, ELKAR-GIE, Donostia, 1994 (7-8 urte).
- GARCÍA, Rodrigo Juan; MORENO, Juan Manuel; BORREGO, Juan Carlos: *Orientación y tutoría en la Educación Secundaria*, Edelvives, Aula reforma, Zaragoza, 1996.
- GIRARD, Kathryn; KOCH, Susan J.: *Resolución de conflictos en las escuelas (manual para educadores)*, Edit. Granica, Bartzelona, 1997.
- GOMEZ, M^a Teresa; MIR, Victoria; SERRATS, M^a Gracia: *Propuestas de intervención en el aula. Técnicas para lograr un clima favorable en la clase*, Narcea ediciones, Madril, 1990.
- GRUP XIBECA: *Los dilemas morales. Un método para la educación en valores*, Edit. NAU LLIBRES, Valentzia, 1995.
- Huisman-Perin, E. "La muerte explicada a mi hija" EL Aleph editores, Barcelona, 2003
- ZENBAITEN ARTEAN: *Desarrollo de valores y autoestima (DEVA)*, IPE S.L., Caritas, Bilbo, 1998.
- ZENBAITEN ARTEAN: *DISCOTE. Aprendiendo a vivir (Desarrollo de habilidades sociales y prevención contra la drogodependencia)*, IPE S.L., Bilbo, 1995 (Hasierako Maila, 1, 2, 3, 4) (Euskaraz eta gaztelaniaz).
- ZENBAITEN ARTEAN: *Orientación y tutoría. Educación Primaria Tercer Ciclo*, Lan-koaderno eta Tutoretzarako Gida, Andaluziako Junta, Consejería de Educación y Ciencia, Delegación Provincial de Córdoba, Kordoba. 1997.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Osasun eta garapen pertsonalerako gida*, Nafarroako Gobernu, Iruña, 1995.
- ZENBAITEN ARTEAN: *Programa de buenos tratos*, Instituto de la Mujer de la Rioja, Consejería de salud y Servicios Sociales, Errioxako Gobernu.
- HARIMAGUADA: *Carpeta de educación afectivo sexual. Educación Primaria (6-12 años)*, Kanarietako Gobernu, Consejería de Educación, Cultura y Deportes, Dirección general de Ordenación e Innovación Educativa, 1994.
- LÓPEZ SÁNCHEZ, Félix: *Educación sexual de adolescentes y jóvenes. Reelaboración de cómo planear mi vida*, Siglo XXI Edit., Madril, 1995.
- MACHARGO, J.: *El profesor y el autoconcepto de los alumnos*, Edit. Escuela Española, Madril, 1991.
- MACHARGO, J.: *Programa para el desarrollo de la autoestima*, Edit. Escuela Española, Madril, 1996.
- MARTINEZ LOPEZ, M^a Mercedes: *Las habilidades sociales en la escuela 1 y 2. Programa de Enseñanza. Educación Primaria*, Edit Promolibro, Colec. Atención a la Diversidad, Valentzia, 1998.
- MAURICE, J. Elias; STEVEN, E. Tobias; BRIAN, S. Friedlander: *Educación con Inteligencia Emocional. Cómo conseguir que nuestros hijos sean sociables, felices y responsables*, Edit. Plaza Janés, Bartzelona, 1999.
- MONJAS, Ines: *Programa de entrenamiento en habilidades de interacción social*, PEHIS, Edit. Trilce, Salamanca, 1993.
- NADEAU, Micheline: *Juegos de relajación para niños de 5 a 12 años*, Edit. Sirio, Malaga, 1998.
- OLAZABAL AMARAL, Leonardo: *Yoga para niños en edad escolar - Eskolaturiko haurrentzako yoga*, Editor DARJEELING, Bilbo, 1989.
- ORTEGA, Rosario eta laguntzaileak: *La convivencia escolar: qué es y cómo abordarla*, Andaluziako Junta, Consejería de Educación y Ciencia, Sevilla, 1998.
- PINEL, Javier: *Fundamentos y técnicas grupales para EGB*, Edit. Marsiega, Madril, 1985.
- SANCHEZ SANCHEZ, Serafin: *La tutoría en los centros docentes. Manual del profesor tutor*, Edit. Escuela Española S.A., Madril, 1985, 4. argitalpena.
- SASTRE, Genoveva; MORENO, Montserrat: *Resolución de conflictos y aprendizaje (desde un punto de vista de género)*, Edit. Gedisa.
- SUPERGINTZA ELKARTEA: *Iguales en las diferencias - Maila berean ezberdin. Guía pedagógica. Ciclo Superior*, Emakumearen Udal Zerbitzua, Bilboko Udala.
- TENA ROSA, M.; CEBALLOS García, M. J.; SEVILLA ARISPÓN, A.: *La acción tutorial. De la práctica a la teoría*, Edit. Bruño, Madril, 1998.
- VALLÉ ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol; *Autoestima" (cuaderno para 1er ciclo de E.Primaria)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1995.

- VALLÉ ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Autoestima" (cuaderno para 2º ciclo de E.Primaria)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1995.
- VALLÉ ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Autoestima" (cuaderno para 3er ciclo de E.Primaria)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1995.
- VALLÉS ARÁNDIGA, Antonio; VALLÉS TORTOSA, Consol: *Las habilidades sociales en la escuela. Una propuesta curricular*, Edit. EOS, Madril, 1996.
- VALLÉS ARÁNDIGA, Antonio: *Autocontrol. Entrenamiento en actitudes, valores y normas" (1º, 2º, 3º, 4º, 5º, 6º)*, Edit. Marfil, Alcoy, 1998.
- VILLA SANCHEZ, Aurelio; AUZMENDI ESCRIBANO, Elena: *Desarrollo y evaluación del autoconcepto en la edad infantil*, Edic. Mensajero, Bilbo. 1999.

HAUR ETA NERABEENTZAKO LIBURUAK

SEXU HEZIKETA

- GRAVELLE, Karen; GRAVELLE, Jennifer: *El libro de la regla. Todo lo que tienes que preguntar (pero tienes que saber)*, Edic. Medici, 1999.
- STOPPARD, Miriam: *¿Qué es el sexo? Una guía indispensable para la educación de los jóvenes*, Javier Vergara Editore, 1998.
- MEREDITH, Susan: *Hacerse mayor*, Edit. USBORNE, Londres, 1998.
- MEBES, Marien; SANDROCK, Lydia: *Ni un besito a la fuerza*, Maite Canal Editora, Bilbo, 2002.
- WESTLEY, Ana: *Historia de un cumpleaños. Libro de educación sexual (Un eficaz instrumento de ayuda para padres y educadores)*, Edit. Grijalva, Barcelona, 1992.
- BRYAN, Jenny: *El milagro de la vida*, Edit. Beascoa, Barcelona, 1994 (17 or.).
- HARRIS, Robie H.: *Sexo ¿qué es? Desarrollo, cambios corporales, sexo y salud sexual*, E. Serres, Barcelona, 1993 (32 or.).
- COLE, Babette: *¡Mamá puso un huevo!*, Edit. Destino, Barcelona, 1993 (32 or.).
- PETTY, Kate: *¿Me cuentas cómo nací? (Con todo el amor de papá y mamá)* SM.
- *¿De dónde vienen los bebés?* Edit. Elfos.

SEXU ABUSUAK

- GÓMEZ CERDÁ, Alfredo: *Anoche hablé con la luna*, Edelvives. Zaragoza. 1993.

AUTOKONTZEPTUA

- CARLSON, Nancy: *¡Me gusta como soy!*, Espasa-Calpe, Madrid, 1990, (32 or.).
- COLE, Babette: *Tres hurras por Errol*, Edit. Destino, Barcelona, 1991, (26 or.).
- HENKES, Kevin: *Crisantemo*, Edit. Everest, León, 1993 (31 or.).
- MATEOS, Pilar: *Zapatones*, SM, Colec. Cuentos de la Torre y la Estrella, Madrid, 1998 (24 or.).
- NÖSTLINGER, Christine: *Mini va al colegio*, SM, Colec. El Barco de Vapor, Madrid, 1992 (78 or.).
- WÖLFEL, Úrsula: *El Jajilé azul*, SM, Colec. El Barco de Vapor, Madrid, 1988. 11. argitalpena (63 or.).

SEXISMOA

- PAOLO, Tomie de: *Oliver Button es una nena*, Edit. Susaeta, Madrid, 1991, (32 or.).
- ALCANTARA, Ricardo: *Amelia, la trapecista*, Edit. Anaya, Colec. El duende verde, Madrid, 1993. (62 or.).
- FINE, Anna: *Billy y el vestido rosa*, Edit. Alfaguara, Madrid, 1994, (100 or.).
- MARTINEZ MECHEN, Antonio: *El despertar de Tina*, Edit. Alfaguara Juvenil, Madrid, 1988.
- NESBIT, Edith: *Historias de dragones*, Edit. Anaya, Madrid, 1991.
- CALLEJA, Seve: *Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari?*, Elkar, 1997.
- Mendieta, M^a J.-Zabaleta, J. "Aitorrek bi ama ditu" Eusko Jaurlaritzaren Donostia. 2004

EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

- BRUCHAC, Joseph: *Las primeras fresas*, Edic. José J. de Olañeta, Palma, 1994.
- COLE, Babette: *La princesa listilla*, Edic. Destino, Bartzelona, 1988. (30 or.).
- TURIN, Adela: *Rosa Caramelo*, Edic. Lumen, Colec. A favor de las niñas, Bartzelona, 1986.

HERIOTZARI BURUZKO HEZKUNTZA

- Calleja, E. *"Si te mueres ya verás dónde vas"* (8 años) E. Ala Delta.
- Capdevila, M. *"El entierro de la abuela"* (6 años). La Galera. Barcelona. 1987
- Mundi, M. *"Cuando estoy triste ante la pérdida de un ser querido"* San Pablo, Madrid, 2001